



ORIOKO UDALA



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2019ko maiatzaren 23a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarraren 2019ko apirilaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2018ko aurrekontuaren Kontu Orokorra.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 3/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente; espediente kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 4/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente; espediente kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO APIRILAREN 30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarraren 2019ko apirilaren 30eko ohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2018KO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2018ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2019ko apirilaren 26ko GAOn (78. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, eragozpenak edo oharra aurkezteko, 2019ko apirilaren 29an hasi zen eta maiatzaren 20an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2018ko aurrekontuaren Kontu Orokorra, aurrekontu propioak osatzen duena.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 3/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2019 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 18.600 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko maiatzaren 10ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 3/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 18.600 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 4/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2019 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 41.432 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko maiatzaren 10ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 4/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 41.432 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



Ondoren, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du gaurkoa dela udal-agintaldiko azken udalbatzarra, ekainaren 13an gaurko akta onartzeko xede bakarrarekin egingo den ezohiko udalbatzarra kontuan hartu gabe; eta, hori dela-eta, hitza ematen die Udaleko talde politikoen bozeramaileei, nahi dutena esan dezaten.

PSE-EE-PSOE talde politikoko bozeramaile Ana Priedek hartzen du hitza eta adierazten du onena opa diela datorren udal-agintaldian jarraituko ez duten udalbatzarkideei eta espero duela kalean topo egingo dutela, modu informalean, besterik ez bada ere kafe bat elkarrekin hartzeko.

Ana Priede zinegotziak dio aipamen berezia egin nahi diola EH BILDUren bozeramaile Emeterio Iribarri eta eskerrak eman nahi dizkiola elkarrekin egin duten lan guztiagatik. Adierazten du Emeterio Iribar izan dela berarekin Udaleko kontuez hitz egiten denbora gehien pasatu duen zinegotzia eta berarentzat oso pozgarria izan dela bera politikoki ezagutu ahal izatea. Ana Priedek gehitzen du, pertsonalki, onena opa diola hemendik aurrera udal-politikatik aparte egingo duen bizitzan.

Ana Priede zinegotziak aipamen berezia egiten dio, baita ere, EAJko Angel del Hoyo zinegotziari, berarekin ere oso momentu onak pasatu dituelako Udaleko lanetan.

Bukatzeko, Ana Priede zinegotziak alkateari opa dio goza dezala bere bizitza pertsonal eta familiarraz Udaleko zeregin politikoetatik aparte.

ORAIN taldeko bozeramaile Jose Angel Iparragirrek hartzen du hitza eta datorren udal-agintaldian jarraituko ez duten udalbatzarkide guztiei opa die zoriontsu izatea beren ibilbide pertsonal eta profesionalean, eta adierazten du, baita ere, espero duela ez beren falta bilatzea.

EH BILDU taldeko bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du 27 urterekin hasi zuela bere ibilbide politikoa Udalean eta ia 62 urterekin utziko duela. Adierazten du oso esperientzia ederra eta betegarria izan dela, nahiz eta Ana Priederen aitarena bizitza osoan gainean eramango duen karga bat izan. Nabarmentzen du Ana Priede pertsona atsegina eta oso lankide ona dela eta, bukatzeko, eskerrak ematen dizkie udalbatzarkide guztiei, agintaldiz agintaldi zeregin politiko asko partekatu dituztelako.

Alkateak hartzen du hitza eta idatzi bat irakurtzen du, hitzez hitz honela dioena:

Legealdiaren amaiera iritsi da. Lau urte hauetan zehar hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu ditugu elkarrekin eta atsegin handiz egindako elkarlana izan da. Horregatik, gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuet, nire izenean eta gobernu taldea osatu dugunon izenean.



ORIOKUDALA



Gobernu honek argi izan du bere zereginaren helburua: Orio herri dinamikoa eta bizi-kalitate onekoa izan dadila. Eta egiteko horretan zuek izan zaituztegu bidelagun.

Badakigu egindako lana ez dela erraza izan. Izan ere, zuen aisialdiko denbora erabili behar izan duzue Oriotar guztion gozamenerako izan diren ekintzak antolatzeke.

Eta horregatik nire esker beroena adierazi nahi dizuet. Eskerrik asko, ahaleginaren kulturaren eta elkarbizitzaren eta errespetuaren oinarritutako komunitatea eraikitzeke zeregin honetan lagundu diguzuelako.

Aipamen berezi bat eduki nahi nuke Udal honetako tekniko eta langileekin. Beren lanari esker, udaletxe honek aurrera egiten du eta badakit alderdi guztien babesa edukiko dutela datorren legealdian.

Ez nuke bukatu nahi eskertu gabe nirekin Gobernu Organoan jardun diren zinegotziei eta nola ez gure idazkariari, bere pazientzia guztiarekin egon delako gure eztabaidetan.

Eta, azkenik, plenoetan egon zareten herritar guztiei.

ESKERRIK ASKO DENORI!

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,